


Guggenheim Bilbao Museoak

2012ko urriaren 2an aurkeztuko du

Egon Schiele

VIENAKO ALBERTINA MUSEUM-EKO ARTELANAK



Babeslea

15 GUGGENHEIM
BILBAO 1997-2012

Egon Schiele. Vienako Albertina Museum-eko artelanak

■ Erakusketaren hasiera eta bukaera egunak: 2012ko urriak 2–2013ko urtarrilak 6

■ Komisarioa: Klaus Albrecht Schröder

■ Aretoak: 305, 306, 307

Egon Schiele XX. mendeko artista adierazgarrietako baten sormenaren unibertsora hurbiltzeko abagunea da, ehunka marrazki, gouache, akuarela eta argazki ikusteko aukera, alegia. Artistaren lan hauek Vienako Albertina-tik datoz: lan grafikoek munduko bilduma historiko handienetako du erakunde horrek, espresionista austriar gailen honen paper gaineko lanen bilduma garrantzitsuen barne.

Schielek hamar urte lanean murgilduta egon ondorengo eboluzio estilistikoaren ikuspegi paregabea eskaintzen zaigu hemen. Hamar urte labur baina emankorrak izan ziren; izan ere, gazte zela, 28 urte zituela, hil zen. Hemen, artistaren lan grafikoak artearen historiari egindako ekarrian jarri dugu arreta berezia eta, azken batean, nazioartean ospetsu bihurtu zuen lanean.

Egon Schiele erakusketa ibilbide paregabe bezain liluragarria da, artearen historian jarrera iraultzailea azaldutako artista baten lana abiaburu duena: Vienako Akademian izan zuen prestakuntza aldian egindako hasierako lanak, Gustav Klimtek eta Vienako Modernismoak haren lanean izandako eragina azaltzen dutenak, eta naturalismoa alboan utzi zuen azken urteetako lanak daude; azken horietan, kolorearen eta motibo berri eta harrigarriak mugara zeharo eramane zituen, esaterako biluzi erotiko agerikoak edo haurren erretratuak egin zituen.

Bizialdi laburra izan zuen arren, eta artean hamar urte inguru (1908–1918) jardun zuela kontuan hartuta, Egon Schielek obra joria utzi zuen, zirriborroen koadernoek gain paper gaineko 2.500 lan baino gehiago eta zur eta mihise gaineko 330 pintura inguru sortu baitzituen. Esaterako, Gustav Klimtek (1862–1918) ez bezala, marrazkiak gero sortzen zituen koadroetarako zirriborro gisa egiten zituenak, Schielek artelan mailara eramaten zituen paper gaineko lanak. Izan ere, bere marrazkiei margolanetan baino askatasun eta espresibotasun handiagoa darie.

Egon Schielek oso modu berezia eta aparta garatu zuen Vienako Sezesioaren gainazal lauen erabilera dekoratiboa eta estiloko lerro edergarri arinak jorratzeko. Gorputzaren adierazpide espresionista, keinuak eta mimika argazkilaritza dokumentalaren eragina jaso zuen: emakumeengan historia egoerak biltzen dituen Jean-Martin Charcot doktorearen Parisko Salpêtrière ospitaleko pazienteen argazkiek eta Otto Schmidten estudioko argazki erotikoez piztutako inspirazioa. Bere obran, artista austriarrak nabaritasun berria, bestelakoa, eman zion emakume biluzien irudiari, baita gaixotutako gorputzari edo nortasunaren desegite patologikoari ere. Hauek dira Schielearen obraren

beste eragin batzuk: Teosofia, espiritismoa eta mamuen argazkiak, hilkortasunaren ebidentzia direnak. Horren adibide ditugu bere irudietako asko inguratzen dituzten aureola zuriak: “gorputzei darien argia”.

Hastapenak eta Vienako Modernismoari lotzea

Familiaren egoera ekonomikoa gero eta okerragoa izan arren, eta eskolan emaitza onik ateratzen ez bazuen ere, Egon Schiele, hamasei urte besterik ez zituela, Vienako Arte Ederretako Akademia famatuan onartu zuten, inperioan zen arte prestakuntzarako zentrorik gailenenean, alegia.

XIX. mendearen amaieran, Vienak, hiri dotore eta aristokratikoak, ekonomikoki ahaltso eta bizitzaz beteak, lehen ezagutu ez zuen goraldi kulturala izan zuen Lehen Mundu Gerra hasi aurreko urteetan. Sigmund Freud, Gustav Mahler, Ludwig Wittgenstein eta Gustav Klimt, batzuk aipatzearren, garai horretan bertan bizi eta gaur egun nazioartean famatu dira.

Egon Schiele, jakin-minez eta liluraz betea, gazteak arreta osoa jarria zion kultur joritasun hari. Prestakuntza sendoa jasotzen zuen Akademian, besteren artean giza anatomiaren marrazkigintzan, baina gero eta gutxiago atsegin zituen bertan arteari buruz nabari zuen ikusmolde kontserbadorea eta “Ringstraße garaiko” estilo historizista zaharkitua.

Ikasle zela, Schielek sortutako aurrenetako lanak batik bat paisaiak izan baziren ere, laster erakutsi zuen autorretratuak egiteko nahia, garai hartan ohikoa ez zena. Gazte izan arren, aurreneko urte haietako lan batzuek, erakusketan ikus ditzakegunetako batzuek, esaterako, *Autorretratu* (1906) eta *Autorretratu xingola buruan* (1909), aukera ematen digute artista irakaskuntza akademizistatik hasia zela urruntzen pixkanaka nabaritzeko: “Sezesioak” inspiratutako kontzeptu modernoetara heltzeko — nazioarteko Modernismoaren Vienako aldaera, Gustav Klimt buru zela—, baita lerro edergarri arinen erabilerari ere. Gustav Klimten eragina postalatarako egin izan zituen lau zirriborro finetan antzeman daiteke; posta-txartelak ez ziren inoiz inprimatu, baina zirriborroak hemen izango ditugu batera ikusgai, hala ere. Horien artean nabarmentzekoa da *Aureoladun gizon bi*, ca. (1909), non Schielek bere burua irudikatzen duen beltzez jantzita.

Akademismotik urruntze horren erakusgarri bikaina dugu hasierako garai hartan sortutako biluzi ederrenetakoa: *Emakume biluzia etzanik* (1908); bertan, emakume baten irudia ageri da erdi makurtuta, atsedean hartuz, eta obrari xarma handia darion erritmoa lortu zuen artistak.

1909 eta 1910 bitartean egindako erretratu sorta batek, horien artean *Anton Faistauer pintorearen erretratuak* (1909) eta *Biolontxelo-jotzailea* (1910) akuarela zoragarriak, agerian uzten dute artistak urte haietan dagoeneko lortutako estilo berezia eta aparta eta, Art Nouveau-ren ezaugarri diren osagaietako batzuk biltzen badituzte ere, iragarri egiten dute Egon Schielek giza gorputza irudikatzearen ohiko hizkuntza espresionista: batetik, irudia zehazten du eta, bestetik, alboratu egiten du objektua ezohiko perspektibak erabiliz, imitazio errealistaren eta abstrakziorik puruenaren arteko oreka hobezina, alegia.

Hasierako arrakasta eta kartzela

1910az geroztik, artistaren sormen eta joritasun handiko aldia hasi zen. Garai hartan, haurren erretratu sail bat sortu zuen, errealismo gordina eta naturala ezaugarritzat zuena; lan horietatik hunkigarrienetakoak *Kaleko hiru mutil* (1910), *Neska gazte beltzaran bat biluzik* (1910) eta *Eseritako neska biluzia* (1910) dira. Artista austriar honen obrak askatu egiten du biluziaren irudikapen erotikoa karikaturren loturetatik edo argazki pornografikoetatik, edertasunaren eta itsustasunaren artean beti izandako antagonismoa baztertuz eta artearen arloan genero honi ikuspegi berri batetik nagusitasun berezia emanez.

1911n, Egon Schiele, bere neska-lagun gazte eta modelo Walburga “Wally” Neuzil-ekin batera (1894–1917), Vienakoa baino bizimodu lasaiago baten bila, Krumau-ra joan zen bizitzera: Bohemiako hegoaldean dagoen Erdi Aroko bazter pintoreskoez betetako hiri txiki bat, artistaren amaren jaioleku eta gaur egun Txekian dagoena —Český Krumlov izena du—.

Hala ere, gaur egun Schielek duen ospea gehienbat margotu izan zituen Krumau hiriko paisaiei zor bazaie ere, artistaren “ohaidetza” eta haurrak eta gazteak modelotzat sarri asko erabili izana ez ziren batere ondo ikusiak hiri kontserbadore horretan eta horrexegatik, hain zuzen ere, utzi behar izan zuen leku hura artistak. Ondoren, “Wally” rekin, landa-eremura joan zen berriro bizitzera, Neulengbach udalerrira, hiriburutik 35 km-ra mendebalderantz.

Pixkanaka, arte giroan ezagun izaten hasi zen Schiele eta, 1912an, Vienan ez ezik, Budapesten y München parte hartu zuen zenbait erakusketatan. Dena den, urte hartan, apirilean, bere bizitzak beste norabide bat hartu zuen: atxilotu eta Neulengbacheko kartzelan sartu zuten adinez txikia zen neskatila bat bahitzeagatik —itsas armadako ofizial baten alaba—. Akusazioa oinarririk gabea izan arren, honela akusatu zuten artista, “biluzi erotikoen erakusle”, bisitatzen zuten adin txikikoek bere estudioan biluzien marrazkiak ikusteko aukera baitzuten bere estudioan. Horren ondorioz, 24 eguneko kartzela zigorra ezarri zioten. Bere marrazkietako bat, izan ere, erre egin zuten ekintza sinboliko batean.

Urte hartako apirilaren 19aren eta 27aren artean, Schielek akuarela sorta bat margotu zuen kartzelan, bere beldur-ikara aditzera ematen digutenak, horien artean erakusketa honetan ikusteko aukera izango ditugunak: *Ez naiz zigortuta sentitzen, baizik garbituta!* 1912.4.20 (*Nicht gestraft, sondern gereinigt fühl ich mich!*, 20.IV.12), 1912 eta *Atea kanpoaldera*, 1912.4.21 (*Die Tür in das Offene*, 21.IV.12), 1912.

Arrakasta eta heriotza

Batere atsegina izan ez zen gertaera horren ondoren, artistak alde egin zuen Neulengbachetik ere eta, bidaiari batzuk egin eta gero, Vienara itzuli zen behin betiko. 1913an eta 1914an, Schielek, berriro ere Arthur Roessler kritikaria bitartekari zela, hainbat erakusketatan hartu zuen parte Alemaniako leku hauetan: Munich, Hanburgo, Breslavia, Stuttgart, Kolonia, Dresde eta Berlin. Hala eta guztiz ere, Egon Schieleren lanak Erroman, Bruselan eta Parisen ere aurkeztu ziren, nazioartean etorkizun handiko ibilbidea iragartzen zuen gertaera.

1913. urtearen erdialdera, Schieleren marrazki estiloa bereizi egin zen arkatzez marraztutako ingerada irregularrengatik eta irudien ezegonkortasun sentsazioagatik koadroaren gainazalaren barruan, eta hori nabarmen ikus daiteke *Emakume soina gaueko atorra jasota* (1913). 1914. urtearen inguruan, eskematizaziorako eta geometriarako halako joera suma daiteke Schieleren lanean, naturaletik urrun oso. Horren erakusgarri dugu *Berrerospena* (*Erlösung*, 1913) izeneko bere gouache bikaina; bertan, buruaren eta eskuen bolumena eta plastizitatea oso bestelakoa da oihaletako osagaien lautasunaren aldean. Hauxe dugu beste adibide bat, *Emakumea biluzik belauniko, besoak aurrera* (1914); bertan, giza generoari buruzko ziurgabetasun existentziala agerian geratzen da irudikatutako emakumearen edozein begirada edo keinu ezabatuz, baita testuinguruari lotutako edozein aipamen ere.

Urte hartan bertan, Anton Josef Trcka argazkilariarekin hasi zen bere estudioan lanean. Erakusketa honetan miretsi ditzakegun argazkietako batzuk sortu zituen harekin Schielek. Artistak hartutako poseen dramatizazio teatrala eta keinu bidezko bere hizkuntza, espresionismoari lotua, oso adierazgarriak dira irudi hauei egin zien ekarriagatik.

Lehen Mundu Gerrak (1914–1918) zapuztu egin zituen bat-batean bere itxaropen guztiak. Hasiera batean soldadutzarako ezgai hartutzat, azkenean deitu egin zioten 1915eko ekainean. Hala eta guztiz ere, lagunak eta bere talentua miresten zuten ofizial batzuen babesari esker, ez zuten frontera eraman eta bulegoko lanak egin zituen Vienan eta Austria Beherean. Bertan, marrazkiak egin ahal izan zituen eta, denbora tarte batez, estudio bat ere izan zuen. Urte hartan bertan, Edith Harms-ekin ezkondu zen Vienan, hiri horretan zuen estudioaren parean bizi zen familia erdi-burges baten alabetako batekin, alegia.

Bai emaztea, bai haren ahizpa Adele, Schieleren ohiko modelo izan ziren harrezkero. *Edith Schieleren erretratua* (1915) lanean, orduan bere ezkongai gazte Edithen aurpegiaren espresio hunkigarria eta malenkoniatsua islatzen ditu artistak; *Artistaren koinata Adele Harms-en erretratua* (1917) lanean, berriz —naturalismo nabarmena dario—, zerrenda zuri-beltzeko soineko dotore batez jantzita ageri da Adele, irudi apainean arreta jarriz.

Eseritako bikotea (1915) lanak maisutasun handiz aditzera ematen digu artistak zuen uste sendoa, alegia, gizakia, funtsean, bakarrik dagoela munduan eta gizonaren eta emakumearen artean dagoen alde izugarria zeharkaezina dela, bikote maitale baten bitartez; bertan, gizona panpina ornogabe bat balitz bezala ageri da emakumearen besoetatik zintzilik. Bizitzaren eta heriotzaren arteko elkartzearen alegoriaren inguruko pesimismo existentziala, artistak bere ibilbidean zehar beti aditzera emana.

1917an, Amsterdam, Stockholm eta Kopenhagen antolatu ziren erakusketetan aurkeztu zen bere obra. 1918ko martxoan, Vienako Sezesioaren 49. erakusketaren barruan, “Austriako Arte Berria” erakusteko taxutu zen batean, leku nabarmena izan zuen Schielek, bai artearen bai ekonomiaren ikuspegitik arrakastarik handiena ekarri ziona: koadro ugari saltzea lortu zuen eta eskari berri batzuk jaso zituen.

Schielek beti irrikatu izan zuen bakea eta asmo handiak zituen gatazkaren ondorengo garaietarako, esaterako, gazteei zuzendutako hezkuntza humanista berrian laguntzea eta mundu berri eta hobetoago bat eraikitzen parte hartzea. Baina, 1918ko udazkenean, bere emazte Edithen “gripe

espainola” hartu zuen —Europar hondamena izan zena eta milioika hildako eragin zituen— eta urriaren 28an hil zen, sei hilabetez haurdun zegoenean. Artista arduratu egin zen emaztea zaintzeaz eta kutsatu egin zitzaion gaixotasuna; hala, emaztea baino hiru egun geroago hil zen 28 urte zituela.

labilbide laburra Egon Schielerena, baina XX. mendeko artearen garapenean ekarri handia egindakoa.

Testuinguru historikoa eta didaktika gunea

Frantziar Vincent van Gogh (1853–1890) hil zen urte berean jaio zen Austrian Egon Schiele, 1890eko ekainaren 12an. Garai hartan, Austria ez zen gaur egun den Alpeetako errepublika txikia, Europaren erdialdeko Habsburgotarren inperio handia baizik; orain Espainia dena baino hiru aldiz handiagoa. Ordurako, Erdi Aroaz geroztik hazi besterik egin ez zuen lurralde hark atzean utzia zuen lehen bizitako goraldirik handiena eta, 1867tik, eskubide berdintsuekin, bi zatitan banatu zen: Austria eta Hungaria. Frantzisko Jose I.a, Austriako enperadorea eta Hungariako erregea, eta “Danubioko Monarkiaren” batasunaren azkeneko ikur errespetatua, 42 urtez zegoen tronuan Egon Schiele mundura etorri zenean.

XIX. mendearen bukaeran eta Lehen Mundu Gerra hasi baino urte batzuk lehenago, aurrekaririk ez zuen goraldi kulturala bizi izan zuen Vienak.

Erakusketa honek Didaktika gunearekin osatzen da, Museoko bai erakusketa aretoetan bai hirugarren solairuko korridorean bisitariari artistaren biografiaren datu adierazgarrienak eskaintzeko, Austriako aldaketa sozialaren eta politikoaren testuinguruan: modernotasun egarri zen herrialdea, eta pentsamenduan aurrerapauso handiak eman zituen (Sigmund Freud eta sexualtasunari eta psikoanalisiari buruzko bere teoriak), baita zientzian (adimen gaixotasunei buruzko azterlan medikoak eta emakumeari buruzkoak) eta artean ere (1897an Sezesionistak eratu ziren, arkitektura, diseinua eta artea ordezkatzeko zituztenak).

Gainera, Didaktika gunek aukera emango digu Schielek beste artista eta intelektual batzuekin izan zuen harremana ezagutzeko, eta bere sortze prozesuan Gustav Klimt, besteak beste, harengan izan zuen eraginaz jabetzeko —bere aholkulari/zaintzaile zuen bera—. Egunero, dokumental bat proiektatuko da etenik gabe, 2012an BBCrako John MacLavery-k zuzendua, eta ideia horiek guztiak laburbiltzen dituen *Sex and Sensibility The Allure of Art Nouveau* izenekoak.

Katalogoa

Erakusketa hau dela eta, Guggenheim Bilbao Museoak irudiez hornitutako katalogo bat argitaratu atera du bertan ikusgai jarritako artelanekin, Albertina Museum-eko Klaus Albrecht Schröder komisario eta zuzendariaren entsegu bat ere biltzen du Egon Schieleren obran nagusi diren motibo nagusien eta printzipio formalen inguruan, baita erakusketa honetan bildutako artistaren artelanen xehetasuneko sarrerak eta biografia osatua ere.

Azaleko argazkia (xehetasuna):

Autorretratu txaleko horia jantzita, 1914

Kolore opakak eta arkatza Japoniako paper gainean

48,2 x 32 cm

Albertina, Viena, inb. zk. 31157

Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Komunikazio eta Marketin Arloa

Tel: +34 944 35 90 08

Fax: +34 94 435 90 59

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es

Guggenheim Bilbao Museoen gaineko informazio guztia hemen eskuragarri: www.guggenheim-bilbao.es (prentsa eremua).

Prentsa irudiak:
Egon Schiele. Vienako Albertina Museum-eko artelanak
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoz bidez, media@guggenheim-bilbao.es

1. Egon Schiele (1890–1918)

Autorretratu, 1906

lkatz-ziria

45,5 x 34,6 cm

Albertina, Wien Inv. ESA1106r



2. Egon Schiele (1890–1918)

Autorretratu xingola buruan, 1909

Arkatza eta koloretako klarionak marrazki-paper gainean

40 x 29,8 cm

Albertina, Wien Inv. 30771



3. Egon Schiele (1890-1918)

Autorretratu beheko betazala tenkatuta, 1910

Klariona, urmargoa eta kolore opakua biltzeko paper marroi gainean

44,3 x 30,5 cm

Albertina, Viena, inb. zk. 30395



4. Egon Schiele (1890-1918)

Biolontxelo-jotzailea, 1910

Klarion beltza eta urmargoa biltzeko paper gainean

44,7 x 31,2 cm

Albertina, Viena, inb. zk. 31178



5. Egon Schiele (1890-1918)

Gerti oihal okreen aurean, 1910

Arkatza eta kolore opakua Japoniako paper gainean

55,1 x 34,7 cm

Albertina, Viena, inb. zk. 27943 Albertina, Viena, inv. 27943



6. Egon Schiele (1890-1918)

Eseritako bi neska, 1911

Arkatza, urmargoa eta zuri opakoa Japoniako paper gainean

41,3 x 32 cm

Albertina, Viena, inv. 27945



7. Egon Schiele (1890–1918)

Atea kanpoaldera, 1912.4.21 (Die Tür in das Offene, 21.IV.12), 1912

Urmargoa eta arkatza Japoniako Strathmore paper gainean, inprimatzeduna
48,3 x 32 cm

Albertina, Viena



8. Egon Schiele (1890-1918)

Modelo ilehori bat biluzik, oihal marroi baten gainean eserita, 1912

Urmargoa, kolore opakua eta arkatza Japoniako Strathmore paper gainean,
inprimatzeduna

32 x 48,2 cm

Albertina, Viena, inv. 31177



9. Egon Schiele (1890-1918)

Berrerospena (Erlösung), 1913

Kolore opakua eta arkatza Japoniako paper gainean
48 x 32 cm

Albertina, Viena Inv. 29764



10. Egon Schiele (1890-1918)

Emakume bat biluzik hankak zabalik, 1914

Arkatza eta kolore opakua Japoniako paper gainean
31,4 x 48,2 cm

Albertina, Viena, inv. 26667



11. Egon Schiele (1890-1918)

Autorretratu txaleko horia jantzita, 1914

Kolore opakua eta arkatza Japoniako paper gainean
48,2 x 32 cm

Albertina, Viena, inv. 31157



12. Egon Schiele (1890-1918)

Krumau-ko antzinako etxeak, 1914

Kolore opakua eta arkatza Japoniako paper gainean
32,5 x 48,5 cm

Albertina, Viena, inv. 31158



13. Egon Schiele (1890-1918)

Eseritako bikotea, 1915

Urmargoa, arkatza eta zigilua, kartoi gainean muntatua
51,8 x 41 cm

Albertina, Viena, inv. 29766



14. Egon Schiele (1890–1918)

Artistaren koinata Adele Harms-en erretratu, 1917

Klarion beltza eta kolore opakua Japoniako paper gainean
43,8 x 28,5 cm

Albertina, Viena

